

1. GAIA: KULTURA, KOMUNIKAZIOA ETA IKUS KOMUNIKAZIOA

1.1. Kultura eta komunikazioa

1.2. Ikus komunikazioa

1.1. KULTURA ETA KOMUNIKAZIOA

Kultura komunikazioaren ikuspuntutik

Pertsona eta inguruaren artean elkarrekintza iraunkorra gertatzen da. Elkarrekintza prozesu horretan, ingurutik era guztietako bizigarri ¹ eta mezuak jasotzen ditu eta hauen arabera bere portaera aldatuz erreakzionatu ohi du. Jasotako mezu horiei pertsonak eman diezaiekeen erantzuna inguruan aritzea eta berau aldatzea izan daiteke. Honen ondorioz, inguruaren eraldaketak gertatzen dira. Pertsonak sortzen duen inguru artifiziala eta hau sortzeko eta eraldatzeko prozesuak *kultura* deitzen dugu.

Zientzia bakoitzak era desberdinean definitu du kultura. Herri mailan, museo, monumentu, arte lan, liburu, antzerki, musika eta abarrekin erlazionatzen den guztia kulturatzat hartzen da. Kultura komunikazioarekin erabat lotuta dago; gertaera kultural bakunenetan ere komunikazio-funtzioa aurki dezakegu. Komunikazioaren arlotik, pertsonak bere pertzepzio-inguruari ² ezartzen dizkion aldaketa gutxi gora-behera iraunkorrak kultura dei ditzakegu (Moles, 1975: 203). Kultura pertsonen arteko komunikazioaren ondorioa da; komunikazio-gertaera asko euskarri materialetan gauzatzen dira, objektu bihurtzen dira. Baina kultura ez da ekoiztutako objektuetan soilik islatzen, baita ekoizteko prozesuetan, bizimodu eta ohituretan, ezagutzetan eta arte, zientzia zein industriaren garapen mailetan ere antzeman dezakegu. Honez gain, pertsonen portaera gidatzen duten zeinuen unibertsoa da, gure burua eta mundua definitzea, sentimenduak adieraztea eta iritziak azaltzea ahalbidetzen dituena.

Gaurko gizartean jarduera gehienak komunikazioaren ikuspuntutik uler daitezke. Lantegi batean egiten den lanean, salgaiak garraiatzean, instituzioetan, eskolan, eta abarretan, komunikazio prozesuak ematen dira. Oro har gizarteko bizitza komunikazioan oinarritzen dela esan dezakegu. Kultura komunikazioa besterik ez dela ezin daiteke esan, baina geure ustez, kultura bere osotasunean ulergarriagoa da komunikazioaren ikuspuntutik aztertzen bada.

Pertsonen arteko harremana zein inguruarekin duten erlazioa aztertzeko eredu kontzeptuala dugu komunikazioa. Baina, zer uler daiteke komunikazioaz?. Hainbeste definizioen aurrean zaila egiten da horrelako fenomeno konplexu bati buruz kontzepzio bateratu bat izatea. "Komunikazioa hitz haserregarria da, trasteleku sinesgaitza non trenak eta autobusak, telegrafoak eta telebista-kateak, elkarrekin egoteko talde txikiak, ontziak, eskusak eta noski, mapatxe-kolonia bat ere aurki ditzakegun, zeren Lorenz, Tinbergen eta Frisch-i ezker jakina denez, animaliak elkarren artean komunikatzen baitira. Baina, arrazoi berberetatik termino liluragarria da" (Winkin, Roda-n, 1988:34). Komunikazioa gizakiak duen izugarritzko gaitasun sinbolikoan oinarritzen da eta gizarteko bizitzan errotua dagoen prozesu konplexua da.

Orokorrean, hiru definizio multzo handiak bereiz ditzakegu, nahiz eta multzo hauen arteko mugak oso argiak ez izan, eta aldi berean multzo desberdinetan kokatu daitezken perspektibak egon.

Lehenengo definizio multzoak *esangurak ezartzeko prozesutzat*, hots, zerbait *subjektibo* bezala hartzen du komunikazioa. Perspektiba honetatik, subjektuak bere berezko esangurak eraikitzen dituela kontsideratzen da. Pertsona objektuz beteta dagoen mundu fisiko batean bizi da eta objektu horiek, beren presentzia materialaz gain, esangura izan dezakete. Sentimenen bidez bizi izandako esperientziak mezu bihurtzen direnean, hau da, hauteman, interpretatu eta pertsonen artean partitzen direnean komunikazioa dugu.

¹ bizigarri: estimulu.


² pertzepzio-inguru: sentimenen bidez, testu honetan ikusmenaren bidez bereziki, hautematen dugun inguru.

Hala ere, gehien zabaldu den definizioak *informazioa igortzeko prozesutzat* hartzen du komunikazioa, hau da, seinaleak, ideiak, hunkipenak, irudiak eta abar igortzeko *nahitaezko eta objektiboa den* prozesutzat. Ikuspuntu honetatik, komunikazio prozesuaren eraginkortasuna azpimarratzen da, mezua bihurdurarik gabe heldu behar zaio hartzaileari. Perspektiba honetatik seinale bat igarotzea da komunikazioa: seinalea iturri batetik irteten da, transmisore baten bidez kanal baten zehar doa eta jasotzaile batenganaino heldu behar du. Baina osagai hauen guztien presentziak ez du komunikazio prozesua bermatzen.

Komunikazioa egon dadin, seinaleak ezin du bizigarri soil gisa jokatu, jasotzailearengandik *interpretaziozko erantzun*³ bat eskatu behar du (Eco, 1991: 24 eta h.). Interpretazioa da, hain zuzen, seinale baten igortze hutsa komunikazio prozesu bihurtzen duena eta jasotzailea gizakia izatea eskatzen duena. "Komunikatzeko ekintzaren bitartez, garai batean eta *R* puntu jakin batean kokatutako gizabanakoak (edo organismoak) parte hartzen du beste garai eta beste *E* leku bateko gizabanako baten (edo beste sistema baten) inguruneke esperientzia eta bizigarrietan, komunak dituzten ezagutzazko osagaiak erabiliz" (Moles, 1975: 119).

Hirugarren definizio multzoan, komunikazioa *helburu bat lortzeari* lotuta agertzen da, prozesua hasten duenak alde aurretik pentsatutako emaitza lortzeari lotuta. Kasu honetan, eraginkortasuna ez da informazioa igortzean soilik oinarritzen, igorleak aurreikusitako erantzuna lortzean baizik. Ildo honetatik, komunikazioaren unibertsoke parte dira organismo baten ekintza pizteko beste organismo batek burututako ekintzak edo gizakien eta erakundeen arteko harremanak eta eraginak sortzen dituzten prozesuak. Definizio multzo honetan, komunikazioa *elkarrekintza* kontzeptuarekin estuki erlazionatuta dago. Elkarrekintza batez ere komunikazio prozesua da eta gizarte-talde bateko kideen artean ematen den *elkarrengan eragiteko ekintza* adierazten du. Egoeraren osagaiei buruz zein beste kideei eta beraien buruei buruz subjektuek duten pertzepzioak baldintzatzen du ekintza hori.

Komunikazio prozesuaren oinarriko osagaiak



Hau komunikazio prozesuaren oinarriko eskema da. Ondoren, oinarriko komunikazio prozesu batean parte hartzen duten osagai desberdinen izaera -batzuetan konplexua eta nahasia-mugatzen saiatuko gara.

Iturria: mezua gauzatzeko igorleak erabiliko dituen datuak, gertaerak edo bere berezko ideiak dira. Adibidez, gertaera bati buruzko albistean, gertaerak dira iturria. Baina, batzuetan, datu edo gertaera bati buruzko informazioa edo testigantza ematen duen pertsona ere iturria deitzen da.

³ Interpretaziozko erantzuna: mezua ulertu edo interpretatu ondoren emandako erantzuna.

Igorlea: pertsona, talde edo aparatu bat izan daiteke. Mezua sortzen edo lantzen du, igorri nahi duen edukia eta horretarako egokiak diren osagai adierazkorak (hitzak, keinuak, irudiak) hautatuz eta mugatuz; mezua igortzeko erabiliko duen kanala ere hautatzen du. Mezua eraikitzeko igorleak egiten dituen operazio hauek guztiak, *kodetzea* deitzen ditugu. Batzuetan, igorlea eta iturria bateratzen dira, adibidez, bere kontakizunak asmatzen dituen idazlea edo bere iritziak adierazten dituen pertsonaren kasuan igorlea eta iturria batera doaz praktikan.

Mezua: kode baten arauari egokituz egindako zeinuen arteko konbinazioa da. Mezua kode baten produktu gisa agertzen da, baina, gehienetan, *testu* bat da: kode desberdinen menpe dauden *mezu desberdinez osatutako* sare bat. Batzuetan sare horrek harremanetan jartzen ditu unitate adierazkor desberdinak eta eduki bakar bat (ahozko mezu bat, eduki berbera igortzen eta mezua indartzen duten keinu eta intonazio konkretuez lagundurik doa beti). Aitzitik, beste batzuetan testu batek harremanetan jartzen ditu unitate adierazkor bakar bat eta eduki desberdinak (polisemiazko kasuak). Mezuak, batez ere estetikoak direnean, igorri nahi zen jatorrizko mezuarekiko interpretazio aberasgarri edota aberranteak lortzea ahalbidetzen dio hartzaileari. Hartzaileak igorlearen kodea identifikatu edo beste batekin ordezkatu ezin duenean, mezua "zarata" hutsa balitz bezala jasotzen du (Eco, 1991: 221 eta h.).

Mezuak, zeinuen konbinazioak direla esan dugu. Baina, zer da **zeinua**?. Nahiz eta teoria asko egon, "aldeztatik onartutako konbentzio bati jarraituz, *gauza baten ordeztako dagoen beste gauzaren bat* zeinutzat har dadila proposatzen dugu" (Eco, 1991: 34). Zeinu bat eratzen da adierazpen planoko osagai bat -adibidez, kolore gorria- edukiaren planoko osagai batekin -adibidez, debekua- erlazionatzen dugunean, arau zehatz batzuetan oinarrituz (zirkulazio kodean kolore gorriak debekua adierazten du). Mezu baten adierazpen planoan era askotako osagaiez osatuta dagoenean, hauek adierazpenaren sistema edo *sistema sintaktiko* bat eratzen dute eta edukiak edukien sistema edo *sistema semantiko* batean antolatzen dira. Adibidez, zirkulazio kodearen formak eta koloreak (triangelua, zirkulua, errektangelua; gorria, zuria, berdea, urdina...) sistema sintaktiko batean antolatzen dira (triangelua + gorria; zirkulua + gorria) eta kode horren sistema semantikoa osatzen duten informazio, aholku eta debeku multzo batekin erlazionatuta dago.

Mezu mota asko dago eta irizpide desberdinen arabera sailka daitezke. Adibidez, mezua hartzeko kanal fisiologikoa kontuan hartuz, ikusteko, entzuteko, usaintzeko, dastatzeko edo ukitzeko izan daitezke. Mezuen euskarri fisikoa kontuan hartuz, paperean inprimatutako mezuak ditugu, edota zinta magnetikoan, argazki pelikulan eta abar.

Kodea: sistema sintaktikoaren zenbait osagai (adibidez, formak eta koloreak) sistema semantikoren osagaiekin (adibidez, informazioa, aholkua eta debekua) lotzen dituen araua kodea deitzen da (Eco, 1991). Baina ez da korrelaziozko arau soilak (adibidez, hiztegi bat), arau konbinatorioen multzoa baizik. Bai lexiko bat bai sintaxi bat barne hartzen dituen gramatika gisa ulertzen da kodea (Eco, 1991:144 eta h.) eta, beraz, onartezinak diren adierazpenak ere zehazten ditu. Hartzaileak igorleak erabilitako kodea edo kodeak neurri batean ezagutzen baditu mezua ulertzeko aukera izango du. Komunikazio prozesu gehienetan, kodeak era partzialean konpartitzen dira igorle eta hartzailearen artean.

Kanala: igorleak antolatutako mezua hartzailearenganaino garraiatzen duen osagai materiala da, biak kontaktuan jarritz; igorritako mezuaren eta hartzailearengan sortutako sentsazioaren artean dagoen pasatzeko sistema materiala da. Komunikazioaren mekanismo fisikoa da adibidez, inprimatutako testua liburu batean, soinuuzko uhinak hizketa batean, telebistako errezeptore bat...

Kanalean askotan nahasten dira *euskarria* eta euskarri horrek *garraiatzen duena* -adibidez, liburuak (euskarria) eta bere baitan bildutako testua (kanala), airea eta soinuuzko uhinak, nerbiozuntza eta inpulso elektrikoak, telebistako zirkuitua eta uhin elektromagnetikoak- (Moles, 1975: 122). Kanal batzuk *naturalak* eta zuzenak dira (kanal fisiologikoak): ikusmena, entzumena, usaimena...; eta beste batzuk *artifizialak* dira, hau da, sistema tekniko bat behar dute: gutuna, telefonoa, telebista, irratia...

Zarata: mezua eraikitzean eta igortzean agertzen den edozein perturbazio mota da: nahigabeko osagaiak, erabilitako sistemarekin egokiak ez diren seinaleak, adibidez, liburu baten inpresio-akatsak edo telebistako irudiak hartzean ikusten diren interferentziak eta distortsioak.

Fenomeno hauei buruz hitz egiteko "zarata" kontzeptua erabiltzen da nahiz eta soinudun mezuak ez izan.

Mezuan eragiten duten distortsio teknikoek gain, "mezua aldatu ala baita ezabatu dezaketen interferentziez betetako giro batean murgilduta dago hartzailea. Adibidez, seinale gorri bat argi gorria nagusitzen den giro batean ia ezabatua izango da" (Munari, 1979:82). Zarata fenomenoak, batez ere, kanalean dauka eragina. Baina, mezuari esangura zehatz batzuk ezartzea ahalbidetzen duten kodeak erabiltzeko hartzaileak izan dezakeen ezintasunari ere zarata kontzeptua egoki dakioke.

Erreduantzia: mezuak daraman informazioarekiko beharrezkoa ez den zerbait da, baina kanalean gerta daitezkeen akatsak zuzentzeko eta igortzeko prozesua ziurtatzeko balio du. Informazioa gutxitzen du eta zarataren eragina murrizten du. Adibidez, telegrama bat gutxienezko erreduantzia duen mezua da baina testuan gertatutako edozein akatsak ulertezina bihur dezake. Mezuaren eraginkortasuna, originaltasuna eta erreduantziaren arteko orekan datza, izan ere, oso erreduantziagarria den mezu batek ez du aditasuna bereganatuko, aitzitik, mezu oso original batek hartzailearen ulertzeko aukera zail edo eragoz dezake.

Hartzailea: kanalaren bitartez igorlearekin harremanetan jartzen da, mezua jaso eta *deskodetzen* du. Deskodetzea mezua eratzen duten osagai adierazkorak ezagutu, identifikatu eta hauei eduki batzuk egokitzean datza. Horretarako hartzaileak kode bat edo gehiago erabili beharko ditu. Deskodetzea igorleak nahi zuenarekiko egokia izan dadin, igorle eta hartzailearen artean *kode komun* batek egon behar du.

Batzuetan hartzailea eta mezua benetan jaso behar duena (*jasotzailea*) nahasten dira (batez ere, hartzailea gizakia denean): besteen hizketa entzuten duen pertsona hartzailea da, baina ez igorritako mezua jaso behar duena, hots, jasotzailea. Bereizketa hau interesgarria izan daiteke kontuan hartzen badugu, sarritan, mezua jaso behar duen giza taldeko partaide ez direnek (adin, maila ekonomiko, kultura eta abar desberdinak direla medio) interpretatzen dutela eta, beraz, igorleak aurreikusi ez dituen beste kode batzuk erabiltzen dituztela.

Mezua zaratak sortutako distorsiorik gabe hartzailearenganaino helduz gero, beraren ulerkuntza baldintzatuko duen zenbait faktore dago. Faktore hauetako bat, hartzailearen *sentimenen egoera* fisikoa da (kanal fisiologikoen egoera), honek mezuaren harreraren eragina baitu: daltoniko batek ez ditu kolore batzuk ikusten eta horregatik zenbait mezu aldatuta jasoko ditu, entzungor batek ezin izango du soinuzko mezuen aurrean erreakzionatu eta abar.

Garapen psikologiko mailak eta *garapen kognitibo mailak* ere mezuen harreraren eragina dute (hiru urteko haur batek edo pertsona heldu batek era desberdinetan barneratuko dute mezu bera). Honekin batera, hartzailearen *aldarteak* eta bere ezagutzen *oroitzapenak* ere eragina izango dute edozein mezu hartzean.

*Ezaugarri kulturek, geografikoe*k eta *historikoe*k ere mezuaren harrera baldintzatuko dute, zeren hartzaileak bere unibertso kulturean parte hartzen duten mezuak soilik deskodetuko baititu.

Faktore hauek guztiak ez dira oso ondo bereizten eta normalean nahastuta agertzen dira, batez ere psikologikoak eta kultureak. Bukatzeko, ezin dugu ahanzi komunikazio prozesuak *testuinguru* zehatz batean gertatzen direla eta, ondorioz, mezu baten deskodetzea aldatuko da hartzailea kokatuta dagoen testuingururen arabera.

Komunikazio motak

Komunikazio motak sailkatzeko irizpide desberdinak erabil daitezke. Horrela, igorle, hartzaile, mezu mota, erabilitako kanala eta abarren arabera sailka ditzakegu:

- Erabilitako kanal motaren arabera komunikazio mota hauek ditugu:

Komunikazio hurbila: leku berean hizketan ari diren bi pertsonen ia kanal naturalak baino ez dituzte erabiltzen (hitz egin, entzun, ukitu...). *Telekomunikazioa*: komunikazioa kanal tekniko baten bidez egiten da nahitaez.

- Komunikazio prozesuaren norabidearen arabera:

Norabide bakarreko komunikazioa: mezuak beti norabide bakar batean doaz, igorlearengandik hartzailearengana. *Bi norabideko komunikazioa*: igorleak eta hartzaileak paperak txandakatzen dituzte beraien artean.

- Igorle eta hartzaile kopuruaren arabera:

Gizabanakoen arteko komunikazioa: pertsona batengandik pertsona batengana egiten dena da. *Hedatzeko komunikazioa*: igorle bakar bat, aldi berean hartzaile talde handi batekin komunikatzen da. Batez ere masa-komunikabideen bidez egiten da: prentsa, irratia, zinea, telebista.

- Mezua hartzeko kanal naturalen arabera: *ikus-*, *entzumen-*, *usaimen-*, *ukimen-* eta *dastamen-komunikazioak* ditugu. Ondorengo orrialdetan *ikus komunikazioari* buruz arituko gara, hau da, komunikazioaren unibertsoko eremu zehatz batean kokatuko da gure lana.

1.2. IKUS KOMUNIKAZIOA

Orain arte azaldutako guztia gizakiarentzat garrantzi berezia hartzen duen komunikazio mota bati egoki dakioko: *ikus komunikazioa*.

"Ikus komunikazioaz ulertzen dena defini ahal daiteke?. Errealitatean, gure begiek ikusten duten guztia da: hodei, lore, marrazki tekniko, zapata, kartel, sorgin-orratz, telegrama bat berez (bere edukia baztertuz), bandera bat" (Munari, 1979:79). Ikus mezuak erabiltzen diren komunikazio-prozesu gisa uler daiteke ikus komunikazioa; ikus mezu horiek ikusmenaren bidez hartzen ditu pertsonak. Hartzeko erabiltzen den *kanal fisiologikoa* eta *ikus mezu zein ikus kodeen* berriazko ezaugarriak ikus komunikazioaren alderdi bereziak dira.

"Mundu guztiak etengabe jasotzen ditu ikus komunikazioak; beraietatik iritziak eta, beraz, jakintzak atera daitezke hitzak erabili gabe. Ikus komunikazioak ez dira *Ikus Arteen* parte diren irudiak soilik, baizik eta pertsona baten portaera, bere janzteko era, leku baten ordena edo desordena, pertsona batek tresna bat erabiltzeko duen modua, "premia gorria" edo "aberastasuna" aditzera eman ditzakeen materia edo kolore multzoa ere ikus komunikazioak dira. Eta komunikazio mota hauek sarritan erabiltzen dira leku batzuk girotzean, prestigioa edo barnera biltzea, lana edo erosotasuna... adierazi nahi denean. Erabilerak ospe eman die zenbait material eta koloreei, eta hauek analfabetoei ere informazio zehatza ematen diete, adibidez, kolore gorria, marmola, metal preziatuak, edota materia arruntak, zaku-tela, materia plastikoak" (Munari, 1979:75).

Ikusten dugun guztiak beste pertsonekin partitzen dugun esangura bat har dezake. Esangura hauek ikasiak diren heinean, errealitateari buruz eta gure buruari buruz norberak eta besteek dituzten ideiak, baloreak eta ikusmoldeak nahastu egiten dira eta gure izaeran eta pentsamoldean eragina dute.

Ikus mezuen unibertsoa sailkatzeko proposamen bat

Ikus mezuen unibertsoa ulergarriago egiteko asmoz, Roman Gubern-ek planteatutako ondorengo proposamen hau hartu dugu oinarri. Proposamen honetan hiru kategoria desberdinetan sailkatzen ditu unibertso ikusgaia osatzen duten ikus bizigarriak:

"Lehenengoz, *mundu natural ikusgaitik* datozen bizigarriak ditugu, hau da, naturaren izaki, produktu eta fenomenoak.

Bigarrenez, *produktu kultural ikusgaiak* agertzen dira, gizakiak sortutako izaki artifizialak. Kategoria honetan, hala ere, bi azpikategoria bereizi beharko ditugu: lehenengo azpikategoriak *ikus komunikazioari eskusiboki ez zuzendutako* produktu kulturalak biltzen ditu, adibidez, eraikuntzak, ibilgailuak, armak...(hauek duten ikus interesa oso handia izan daiteke baina beren ikusgaitasuna ez da beren funtzio bakarra); bigarrenak *ikus komunikaziorako bereziki sortutako* produktu kulturalak biltzen ditu. Azpikategoria honetan, produktu kulturalen hiru talde nagusi bereiztea oso erraza da:

- a) *idazkerak*, piktografikoak zein ideografikoak, fonetikoak, matematikoak, algebraikoak edo musika-notazioak;
- b) *irudi ikonikoak*, finkoak edo mugikorak, bi edo hiru dimentsiokoak (marrazkia, pintura, eskultura, maketak, dekoratuak, argazkiak, zinea, telebista, bideoa, etab.), eta
- c) idatziak edo ikonikoak ez diren *seinaleztapenak*, adibidez makillajeak, militarren galoiak, trafiko semaforoak, banderak, etab.

Eta azkenez, ikus bizigarrien hirugarren kategoria, *naturala* eta *kulturalaren artean* kokatuta egongo litzateke, tresna edo euskarri bezala gorputza erabiltzen duen *keinu-adierazkortasunetik* datorrelako, baina honen seinaleen errepertorioa batez ere kodetze sozialetik (kulturaletik) dator" (Gubern, 1987: 44).

Ikus kodeak

Ezagutzen dugun komunikatzeko tresna ahaltsuena izan arren, hitzezko lengoaiak ez du guztiari buruz hitz egitea ahalbidetzen. Printzipio honetan oinarritzen da ikus kulturaren ikasketa. "Zaila da ulertzea unibertso bat, non pertsonak hitzezko lengoaiarik gabe komunikatzen duten, keinuak egitera, objektuak erakustera, formagabeko soinuak emititzera, dantza besterik ez egitera mugatuz; baina hitzak *soilik* emititzen dituzten pertsonak osatutako unibertso bat ulertzea ere zaila da" (Eco, 1991: 263). Eduki batzuk ezin dira hitzen bidez komunikatu, beste batzuk hitzen bidez soilik komunika daitezke, eta beste eduki batzuk hitzezko eta hitzezkoak ez diren sistemen bidez komunika daitezke.

Ikus komunikazioak duen ezaugarri nabarmena ikus mezuak egiteko erabiltzen den kode mota da. "Ikus komunikazioaren esperientziak nahita eginga dagoela dirudi gogora ekartzeko kode *indartsuak* (hitzezko lengoia) edo oso indartsuak (Morse kodea) erabiliz komunikatzen badugula ere, aldakorak eta gainetik definituak, oso *ahul* eta zehaztugabeak diren kodeen aurrean sarritan egoten garela, eta kasu hauetan onartutako aldaerak ezaugarri bereizleen gainetik nagusitzen dira" (Eco, 1991: 314).

Gutxi gora-behera hertsia diren kodeen presentziak *baliabide sistematiko* eta *sistematizatu gabeko baliabideak* bereizteko aukera ematen du. Ikus komunikazioan erabiltzen diren baliabide gehienak *sistematizatu gabekoak* dira, hau da, kode ahuletan oinarritzen dira. Honek aldaketa ugari baimentzen ditu mezua kodetzean eta deskodetzean.

Kode ahuletan oinarritzen diren ikus baliabideen artean, pintura, eskultura, grabatua, kartela, marrazkigintza, argazkigintza eta bideoa aipa ditzakegu (*irudiak* Gubern sailkapenean). Kode indartsuek zuzentzen duten eta beraz sistematizazio gradu altua duten ikus baliabideen artean, Gubernek proposatutako sailkapeneko *idazkerak* eta *seinaleztapenak* ditugu: zirkulazio-kodea, itsas seinaleak, ikur militarrek, inprimategirako kolore-kartak, marrazki teknikoak.

Ikus mezua

Ikus komunikazioa ikus mezuen bidez gauzatzen da eta hauek gure sentimenengan eragiten duten mezu guztien (soinudunak, termikoak eta abar) parte dira. Mezu guztiak bezala ikus mezua zeinuen konbinaketa batez osatua dago eta, beraz, *adierazpena* eta *edukia* ditu.


Adierazpena mezuaren osagai fisikoa da (ikusgaia). Batzuetan, ikus adierazpena ondo bereizitako zeinuen bidez osatuta dago: idatzitako hitz bat edo partitura bat bana ezinak diren oinarrizko unitateen bidez osatuta daude (letrak, notak eta abar). Unitate hauek oso ondo bereiz daitezke eta maila desberdinetan konbinatu ditzakegu hitzak, esaldiak, paragrafoak eta abar osatzeko. Oso egituratuak diren lengoaietako zeinuak -Gubernek (1987) planteatutako idazkerak eta seinaleztapenak-, *notazio-zeinuak* deitzen dira.

Baina ikus zeinu askok ez dute hain bereizketa zehatza egiteko aukerarik ematen, *sistema trinko edo etengabekoak* dira, adibidez, koloreen sisteman koloreen arteko desberdintasunak hautemanekin izan daitezke. Horregatik, ikus mezua (eta bereziki irudiak) *ikus testu* gisa kontsideratzen dira, *notaziorik gabeko* zeinuak dira.

Notazio-zeinuek eta notaziorik gabeko zeinuek aukera desberdinak ematen dituzte beste zeinu mota batzuetara itzuli nahi direnean. Orokorrean zeinu zehatzak errazago itzul daitezke beste zeinu mota batzuetara, adibidez, hizkuntzaren fonemak Morse koderak, soinuak pentagramako notetara eta abar. (Eco, 1991: 274 eta 277).

Hala ere, ikus mezu gehienetan *oinarrizko osagai ikusgaiak* edo ezaugarri komun batzuk agertzen dira (ehundurak, lerroak, formak, argiztapenak, koloreak), baita notaziorik gabeko zeinuen bidez osatutako ikus mezuetan ere agertzen direnak. Ezaugarri komun horiek ikus mezuaren *plano plastikoa* edo *adierazpenaren plano*a osatzen dute, ikus esangurak igortzeko oinarri fisikoa dira.

Ondorengo eskeman oinarrizko ikus mezu bat osatzen duten bi osagai multzoak ikus daitezke: *adierazpena* eta *edukia*. Esan bezala, adierazpenak edozein ikus mezu sortzeko oinarrizko osagai ikusgaiak biltzen ditu, ikus mezuen eremu sintaktikoa osatzen dutela esan daiteke. Ikus mezuaren edukiak edo eremu semantikoak igorri nahi diren esangurak, hots, kontzeptuak, ideiak eta baloreak biltzen ditu.



Idazkerak bezalako sistema sinboliko batzuk era linealean ordenatzen dira eta *irakurtzeko norabide* bakarra eskaintzen dute: adibidez, idatzitako testu bat (mendebaldean ezkerretik eskuinera eta goitik behera irakurtzen dira testu idatziak), formula matematiko bat edo partitura bat. Aitzitik, ikus zeinu trinko eta notazio-zeinu batzuk irakurtzeko zailagoak dira aurretik zehaztutako irakurtzeko norabiderik ez dutelako. Komiki eta zineko irudi sekuentziatuak kasu bereziak dira, irakurtzeko norabide orokorra finkoa da (komiki gehienetan ezkerretik eskuinera eta goitik behera) baina bineta bakoitzaren edo plano zinematografiko bakoitzaren irakurketa libreagoa da. Irudiaren esangura osoa begiratu batez hauteman daitekeela pentsatzea irakurtzeko norabide finkoren ezak dakarren arazoa da. Ideia honek gainazaleko ezaugarriak besterik ez hautematera bultzatzen gaitu eta, ondorioz, irudi konplexuak irakurtzean ulertzeko arazo handiak sortzen ditu.

Orokorrean, ikus zeinu ugari motibatuak dira: adibidez, objektu batek islatzen dituen argi-izpiek argazkia motibatu edo eragiten dute, kea suak motibatua da, aztarna bat inprimatu duen objektuaren formak eta ehundurak motibatzen dute. Erreferente batek eta/edo eduki batek motibatzen duten adierazpena *zeinu motibatua* deitzen dugu (Eco, 1991: 285 eta h.). Aitzitik *zeinu arbitrarioek* ez dute erlaziorik edukiarekin: "txakur" hitzak ez du zerikusirik ordezkatzeko duen animaliarekin, txakur baten irudiak, ordea, bai. Aipatutako zeinu mota hauen artean koka daitezkeen ikus objektuen adibideak ugariak dira.

Zeinu plastikoa eta zeinu ikonikoa

Objektu bati begiratzen diogunean esangura jakin batzuk egoki diezazkiokegu; adibidez, auto bati buruz dotore, luxuzko, sinpatiko, dibertigarri, gazte, alai eta abar dela esan dezakegu. Esangura hauek objektuaren (kasu honetan autoa) ikus ezaugarriei buruz egiten diren balorazioetan dute jatorria. Hala ere, objektu batzuen esangurak ez datoz ikus ezaugarrietatik soilik etortzen, objektu horiek irudika ditzaketen beste objektu erreal edo alegiazkoekin ezartzen dugun antzekotasunetik baizik. Objektu batean beste objektu erreal edo alegiazko baten antzekotasunak hautematen ditugunean *irudia* deitzen dugu. Ikus objektuen artean, beraz, bi zeinu mota bereiz daitezke: *zeinu plastikoa* eta *zeinu ikonikoa*.

Objektu baten ezaugarri formalak besterik ez aztertzen ditugunean, -beste objektu baten irudikapen gisa hartu gabe-, *plastikaren* planoan ari gara aztertzen: formak eta koloreak ikusten ditugu eta hauei esangura desberdinak ezar diezazkiekegu. Baina objektuaren kolore eta forma horietan beste gauza baten ikus antzekotasuna hautematen dugunean, beste gauza horren irudikapen gisa hartzen dugu eta, ondorioz, maila *ikonikoan* kokatzen dugu azterketa; hau gertatzen da irudiak begiratzen ditugunean.

Plastikaren maila eta maila ikonikoa osagarriak dira: ikonikoa dena plastika-elementuen bidez soilik bihurtzen da ikusgai. Hau da, irudia zeinu plastikoaren osagaiak diren ehundura, lerro, forma, kolore eta abarren bidez soilik egin daiteke ikusgai. Ikus objektu batean maila ikonikoa identifikatu ondoren, hots, errealitate baten iruditza identifikatu ondoren, bera osatzen duten plastika-elementuei esangura desberdina eman diezazkiekegu. Adibidez, koadro batean giza aurpegi baten irudikapena hauteman dugu baina urdin kolorekoa da eta, beraz, "larruazal" kolore ikonikoarekin ez da egokitzen; horrek kolore urdinari beste esangura bat ezartzera behartzen gaitu: pintorearen nahikeria, errealismorik gabeko estiloaren ondorioa (aurpegi urdina duen jenderik ez dago), tristura irudikatze ahalegina eta abar.

Zeinu plastikoa eta zeinu ikonikoa bereizten ditugunean objektuei buruz egiten ditugun interpretazioak aberatsagoak dira. Irudi bat aztertzen dugunean irudikatzen duena identifikatzeaz gain bere ezaugarri plastikoek eskaintzen dituzten esangurak ere kontuan hartu behar ditugu, bestela gainazaleko interpretazioa egingo genuke. Interpretazioaren distortsioak ere gertatzen dira plastika-objektu hutsetan ezaugarri ikonikoak, hau da, errealitatearekiko antzak edo esangurak bilatzen saiatzen garenean: adibidez, plastika mailan soilik aztertu beharko genukeen koadro abstraktu batean alegiazko animaliak, aurpegiak eta abar bilatzen saiatzen garenean egileak hartzailearengandik lortu nahi zuen interpretaziotik aldentzen ari gara.

Zeinu plastikoa eta zeinu ikonikoa bereiztea ez da erraza, izan ere, ikus fenomeno bat fenomeno fisiko soil gisa edo irudikapen ikoniko gisa ikus daiteke. Adibidez, zirkulu bat begiratzen dugunean, zirkulu huts bezala ikus dezakegu -eta orduan zeinu plastiko gisa ikusten ari gara-, baina, baita eguzki, buru, txanpon eta abar bezala ere ikus dezakegu eta, orduan, zeinu ikoniko legez ikusten ari gara; koloreak beroak edo hotzak deitzen ditugunean ere, plastikoaren eta ikonikoaren arteko muga zeharkatzen dugu, gorriak sua gogorarazten digulako eta urdinak gaua.

Komunikazio-funtzioak

Ikus mezuek komunikazio-funtzio desberdinak bete ditzakete eta hauen artean ondorengoak bereiz ditzakegu:

- *Erreferentziala edo informatzailea*: mezuak zerbaiti buruzko erreferentzia egiten edo informazioa ematen duenean agertzen da. Adibidez, gertakari baten argazkia, mapa bat, leku publikoetako piktogramak, irudi zientifiko bat.
- *Adierazkorra, hunkigarria edo atsegintzekoa*: mezua igorlearen bulkada adierazkorren, bere emozioen edo dibertimendurako produktua denean, komunikatzeko asmorik egon gabe. Poza edo tristura adierazpenak edo emozioak adieraztea bilatzen duten artelanak funtzio hauek betetzen dituzten mezuak dira.
- *Kontaktu-funtzioa*: mezuak igorle eta hartzailearen arteko harremana hasi, eutsi eta ziurtatu nahi duenean gertatzen da. Norbaitek hitz egiten digunean egiten ditugun keinuek edo telefonoz hitz egiten ari garenean emititzen ditugun soinuek kontaktu hori agerian utzi nahi dute.
- *Deitzailea, limurtzailea edo iradokitzailea*: hartzailearen arreta eta berarengandik zerbait lortu nahi duten mezuak betetzen dute funtzio hau, adibidez, publizitate-iragarkiak.
- *Metalinguistikoa*: mezuak komunikatzeko erabiltzen dituen kodeei buruzko erreferentziak egiten dituen ematen da. Hizkuntzari buruz hitz egitea edo zineari buruzko zinea egitea funtzio honen bi adibide dira.
- *Estetikoa*: mezuak bere gaineko arreta eskatzen du, bere berezko ikus ezaugarrien gain. Dekorazio-objektuak, norberaren apaingarriak edo artelanak funtzio hau betetzen duten objektuak dira.

Mezu berean hauetako funtzio batzuk batera ager daitezke, baina horietako bat nagusituko da. Komunikazio-funtzioak ez dira igorlearen asmoen ondorio hutsa, baita mezua, testuinguru eta hartzailearen arteko erlazioen emaitza dira ere. Horrela, objektu batek komunikazio-funtzio desberdinak beteko ditu garai eta kultura bakoitzean: armadan sartzera deitzen zuen 2. Mundu Gerrako kartel batek bere garaian funtzio *deitzailea* betetzen zuen batez ere, baina gaur egun, museo batean ikusita, funtzio *informatzailea* eta *estetikoa* beteko ditu, garai hartako egoera politiko, balore, janzteko era edo kartelak egiteko erari buruzko informazioa ematen digulako eta aldi berean, garai hartako eredu estetiko nagusiaren adibidetzat hartzen dugulako; zeramika baten funtzio nagusia erabilgarria izan daiteke, baina museo baten beira-arasa batean jarrita, funtzio informatzailea –zeramika hori sortu zuen kulturari buruzko zerbait esaten digu- eta estetikoa bereganatuko ditu.